


gAZTEMATIKA

Argazkia 2023

2019-2022






Gaztematika

Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sarea

www.gipuzkoangazte.eus

2023 Argazkia



2023ko martxo





AURKIBIDEA

- 0. Aurkezpena
- 1. Gaztematikaren partaideak
 - 1.1. Estaldura
 - 1.2. Gaztematikatik kanpo daudenak
 - 1.3. Atxikimenduak eta diru-laguntzak
- 2. Gaztematikaren garapena
 - 2.1. 0-500 biztanle
 - 2.2. 500-1000 biztanleko herrietan
 - 2.3. 1000-2500 biztanleko herrietan
 - 2.4. 2500-5000 biztanleko herrietan
 - 2.5. 5000-10000 biztanleko herrietan
 - 2.6. 10.000-20.000 biztanleko herrietan
 - 2.7. 20000tik goragoko herrietan
 - 2.8. Laburpen taula
 - 2.9. Erakunde kudeatzaileak
- 3. Gaztematikako langileak
 - 3.1. Teknikariak
 - 3.2. 2018-2022 alderaketa
 - 3.3. Hezitzaileak
 - 3.4. 2018-2022 alderaketa
- 4. Gaztematikako zerbitzuak
 - 4.1. Haurrentzako zerbitzuak
 - 4.2. Nerabeentzako zerbitzuak
 - 4.3. Haur eta gazteen parte-hartzea sustatzeko zerbitzuak
 - 4.4. Gazteentzako zerbitzuak
 - 4.5. 2028-2022 alderaketa
- 5. Haur eta gazteen sustapenerako aurrekontua
- 6. Ondorioak






0. Aurkezpena


Aurreko legegintzaldian, 2015ean, hasi ginen Gaztematika sarearen “argazkia” egiten: legegintzaldi hasieran eta bukaeran informazioa bildu genuen lau urtetan zehar sareak izan duen garapena eta hedapena neurtzeko helburuarekin.

2019-2023 legegintzaldia amaitzear dagoela, goian aipatutako dokumentuan jasotako azken emaitzak gaur egungo egoerarekin alderatuko ditugu. Modu horretan jakingo dugu azken lau urtetako ibilbidea zein izan den: noraino iritsi garen, eta zer geratzen zaigun hurrengo legegintzaldian lantzeko.

Informazio hori 5 ataletan banatu dugu:


- lehenengoan, 4 urteetan zehar sarea osatu duten herriak eta bakoitzarekin garatutako lankidetzak mota jaso da;
- bigarreanean, tamainaren arabera sailkatu ditugu herri horiek, eta bakoitzean Gaztematikak duen garapena aztertu da, 2018 eta 2022ko datuak alderatuz;
- hirugarren atalean, haur, nerabe eta gazteen sustapenerako lanean ari garen pertsona kopurua jasotzen da profil ezberdinetan sailkatuta; hemen ere aurreko azterketarekin datuak alderatu dira;
- laugarren atalean aurkituko dituzue haur, nerabe eta gazteen sustapenerako egun Gipuzkoan dauden zerbitzuen mapak;
- eta, bukatzeko, bosgarren atalean jasotzen da Gaztematika sarea osatzen duten erakundeetan haur,nerabe eta gazteen sustapenerako esleitzen den aurrekontua.





1. Gaztematikako partaideak

1.1. Estaldura



2018an 72 herrik osatzen zuten sarea, eta **2022an 76 dira Gaztematika osatzen dutenak**. Beste modu batera esanda, sarean dauden herrietan Gipuzkoako populazioaren %97,04 bizi da; hau da, 0-30 adin-tartean dauden pertsonen %96,96.


Azken datuekin alderatuta ia 3 puntu igo da portzentajea.

1.2. Gaztematikatik kanpo daudenak

Gipuzkoan 88 herri daude; beraz, 12 besterik ez dira saretik kanpo daudenak. Gehienak, gainera, oso txikiak dira: bi bakarrik dira 5.000 biztanle baino gehiagoko herriak (Mutriku eta Lezo). Denen artean 21.233 biztanle biltzen dituzte.

2022an Gaztematikan ez daudenak

HERRIA	BIZTANLEAK
1 BERROBI	600
2 GABIRIA	508
3 GAINZA	132
4 HERNIALDE	346
5 LEINTZ-GATZAGA	265
6 ZERAIN	244
7 ASTEASU	1478
8 LEGORRETA	1494
9 ANTZUOLA	2169
10 GETARIA	2682
11 MUTRIKU	5288
12 LEZO	6027
GUZTIRA	21233



1.3. Atxikimenduak eta dirulaguntzak

2022an, 76 herri dira Gaztematika sarearekiko atxikimendua sinatuta daukaten herriak, eta haur eta gazteen sustapenerako planak eta egitasmoak gauzatzeko Aldundiari dirulaguntzak eskatu dizkiote. Bi motatako dirulaguntzak eskatzeko aukera dago:

- Batetik, udaleko haur eta gazteen sustapen-sistema garatu eta indartzeko laguntza (b modalitatea). Horretarako bi aukera nagusi daude: epe luzeko elkarlana edo urtean garatzekoa.
- Bestetik, “GFarentzat estrategikoak eta erreferentziazkoak diren” proiektuak garatzeko (a modalitatea).

2019-2022 Diru-laguntzak modalitatearen arabera					
	2018	2019	2020	2021	2022
Proiektu estrategikoak	4	3	0	0	1
Epe luzeko proiektuak	2	2	3	3	3
Urteko proiektuak	49	49	47	49	51
Herri txikietan elkarlanean garatzeko	2	2	1	1	1
Urteko proiektuak herri txikietan	22	24	21	23	22
GUZTIRA	79	75	72	76	78

Taulan 4 urtetan zehar eman diren dirulaguntzen kopuruak jaso ditugu. Ikus daitekeena da nahiko **egonkorra** dela **eskaera**: urtero, bizpahiru proiektu luze daude, eta gainerako eskaerak urteko planak garatzeko dira.


Proiektu estrategikoak garatzeko eskaera gutxi jaso dira.

Alboko taulan jaso dira diru-laguntzen bidez banatutako diru-kopuruak. Kopuru orokorrari dagokionez, urtez urte **berdin mantendu da laguntzearako diru-kopurua: 450.000 €**, 2018an banatutakoa baino baxuagoa izanik.

Proiektu estrategikoak garatzeko banatutako kopuruetan izan dira **aldaketa** handienak, eta beste modalitaterako banatutakoa nahiko egonkor mantendu da. 2019a izan zen horretarako diru gehien erabili zen urtea; pandemia garaian ez zen eskaerarik jaso horrelako proiektuak gauzatzeko, eta 2022an eskaera bakarra jaso zen.

2019-2022 Diru-laguntzetan banatutako kopuruak					
	2018	2019	2020	2021	2022
Proiektu estrategikoak	31.858 €	24.938 €	0	0	10.500 €
Epe luzeko proiektuak	33.959 €	30.924 €	37.708 €	37.775 €	35.848 €
Urteko proiektuak	399.597 €	352.245 €	380.954 €	375.090 €	367.153 €
Herri txikietan elkarlanean garatzeko	11.103 €	20.000 €	4.329 €	10.500 €	10.500 €
Urteko proiektuak herri txikietan	23.482 €	21.893 €	27.010 €	26.636 €	25.999 €
GUZTIRA	500.000 €	450.000 €	450.000 €	450.000 €	450.000 €





▷▷▷ Proiektu estrategikoak

Proiektu estrategikoak	Urtea	Kopurua	Herria
Errenteriako gazteentzako etxebizitza komunitarioa.	2019	4.995,00 €	Errenteria
Nerabeekin haien asialdiaren inguruko hausnarketa partekatua egitea.	2019	12.943,00 €	Aretxabaleta
Martx up! 2019 ideia gazteak martxan!.	2019	7.000,00 €	Donostia
EKKO programa: Eskola-Kirola-komunitatea- Osasuna	2022	10.500,00 €	Arrasate

Goiko taulan jaso dira 2019tik 2022ra bitartean diruz lagundutako proiektu estrategikoak. Lehen aipatu bezala, legegintzaldi honetan ez dira asko izan: guztira 4 proiektu garatu dira, eta orotara 35.438 € inbertitu dira.

▷▷▷ Herri txikietan elkarlanean garatzeko proiektuak

Herri txikietan elkarlanean garatutako proiektuak			
Nerabeen udako eskaintza: Udaleku zipriztinduak. Herri txikietako nerabeei zuzendutako udarako aisialdi eskaintza erakargarria.	2019	16.500,00 €	Aduna, Albiztur, Alkiza , Altzaga, Arama, , Larraul, Lizartza, eta Olaberria
Nerabeen neguko eskaintza: nerabeekin parte hartze saioak:sentsibilizazioa, elkar ezagutza eta balorazioa.	2019	3.500,00 €	Aduna, Albiztur, Alkiza , Altzaga, Arama, , Larraul, Lizartza, eta Olaberria
2020ko herri txikietako nerabeei zuzenduriko neguko eskaintza	2020	4.329,00 €	Olaberria, Altzo, Albiztu, Alkiza, Arama, Altzaga, Aduna eta Leaburu
Nerabeen artean bizikidetza eta hezkidetza garatzeko proiektua.	2021	10.500,00 €	Albiztur, Alkiza, Aizarnazabal, Altzo, Beizama, Bidania-Goiatz, Ikaztegieta, Lizartza, Larraul eta Olaberria
Nerabeen artean bizikidetza eta hezkidetza garatzeko proiektua.	2022	10.500,00 €	Altzo, Altzaga, Arama, Bidania-Goiatz, Ikaztegieta, Lizartza eta Olaberria

Taulan ikus daiteke herri txikietan lankidetza etengabe garatu dela legegintzaldian zehar, pandemia garaian ere proiektuak garatu dira. Guztira, 45.329 € inbertitu dira mota horretako proiektuetan.



2. Gaztematikaren garapena

Atal honetan Gaztematika sarearen garapena ikusiko dugu, herrietan dauden zerbitzuak aztertuz, eta aurreko legegintzaldiaren bukaerako egoerarekin alderatuz. 2018an Gaztesare datu basean jasotako informazioa Bulego Teknikoan bildutakoarekin osatu genuen. Legegintzaldian zehar Bulegoak indar handia egin du datu-basearen eguneraketa egokia lortzeko; horregatik, 2022ko azterketa egiteko Gaztesare izan da informazio iturri bakarra*.

2.1. 0-500 biztanleko herrietan


2022				ZERBITZUAK						
0-500 BIZTANLEKO HERRIAK				Guraso txoko	Haurrak	Nerabeak	Gazteak	Langile kop		
	BIZT. 22	H_N_G22	ARDURADUN TEKNIKOAK							
1	ABALTZISKETA	309	99	Mank. gizarte langilea						
2	ADUNA	486	171	Kultur dinamizatzailea						
3	ALBIZTUR	316	110	Administraria						
4	ALKIZA	357	131	Kultur dinamizatzailea						
5	ALTZAGA	178	66	Administraria						
6	ALTZO	428	145	Administraria						
7	ARAMA	192	62	Administraria						
8	BALIARRAIN	152	62	Mank. gizarte langilea						
9	BEIZAMA	137	37	Administraria						
10	BELAUNTZA	269	82	Gizarte langilea						
11	ELDUAIN	249	84	Administraria						
12	GAZTELU	174	60	Mank. gizarte langilea						
13	IKAZTEGIETA	483	155	Tokiko garapen teknikaria						
14	LARRAUL	258	91	Kultur dinamizatzailea						
15	LEABURU	385	120	Mank. gizarte langilea						
16	MUTILOA	259	81					1		
17	ORENDAIN	247	89	Mank. gizarte langilea						
18	OREXA	114	36	Mank. gizarte langilea						
GUZTIRA				4993	1681	17	1	7	5	1

2018		ZERBITZUAK			
ARDURADUN TEKNIKOAK		Haurrak	Nerabeak	Gazteak	
1	ABALTZISKETA	Mank. gizarte langilea			
2	ADUNA	Mank. dinamizatzailea			
3	ALBIZTUR	Idazkaria			
4	ALKIZA	Mank. dinamizatzailea			
5	ALTZAGA	Idazkaria			
6	ALTZO	Ez dago			
7	ARAMA	Idazkaria			
8	BALIARRAIN	Mank. gizarte langilea			
9	BEIZAMA	Dinamizatzailea			
10	BELAUNTZA	Mank. gizarte langilea			
11	EZKIO	Ez dago			
12	GAZTELU	Mank. gizarte langilea			
13	ITSASO	Ez dago			
14	LARRAUL	Mank. dinamizatzailea			
15	LEABURU	Mank. gizarte langilea			
16	MUTILOA	Ez dago			
17	ORENDAIN	Mank. gizarte langilea			
18	OREXA	Ez dago			
GUZTIRA		13	1	2	

2022an, 2018an bezala, 500 biztanle baino gutxiagoko 18 herri daude sarean, baina ez dira herri berdinak. 2018an Ezkio eta Itsaso banatuta zeuden, eta taulan agertzen dira; 2022an berriz, batu egin dira berriro eta, handiagoa denez, hurrengo taulara pasa dira. Elduain eta Ikaztegieta dira talde honetako herri berriak.

Ekipamenduei dagokionez, **haur eta nerabeentzako ekipamendu gehiago** daude, eta horietako batean lan egiteko hezitzaile bat kontratatu dute (Mutiloa).

*Taulak irakurtzeko argibideak: ■ Guraso txokoak, ■ Haur txokoak, ■ Gaztelekua, ■ Gazteentzako eskaintza, ■ Haur eta Gazteen parte-hartzea sustatzeko Zerbitzua



2.2. 500-1.000 biztanle dituzten herrietan


2022				500-1.000 BIZTANLE				
	BIZT. 22	H_N_G22	ARDURADUN TEKNIKOAK	ZERBITZUAK				Langile kop
				Guraso Txoko	Haurrak	Nerabeak	Gazteak	
1 AIZARNAZABAL	777	250	Liburutegia, kultura, berdintasuna eta sustapena				Ekarteen gunea	
2 AMEZKETA	948	291	Suspertzailea			Kalexka		1
3 BIDANIA-GOIA TZ	528	175						
4 ERREZIL	565	181	Suspertzailea			Kalexka		1
5 EZKIO-ITSASO	616	167			Udala			1
6 ITSASONDO	643	206	Gazteria eta kultura Tek		Udala			1
7 LIZARTZA	636	200	Liburuzaina					
8 OLABERRIA	916	244	Liburutegia, kultura, kirola eta sustapena		Mattin Abentura			1
GUZTIRA			6	1	6	6	1	5


2018		ZERBITZUAK				
	ARDURADUN TEKNIKOAK	Guraso Txoko	Haurrak	Nerabeak	Gazteak	Langile kop
2 BIDANIA-GOIA TZ	Ez dago					
3 ERREZIL	Ez dago					
4 ITSASONDO	Suspertzailea					
5 LIZARTZA	Gizarte langilea					
6 OLABERRIA	Dinamizatzailea					
GUZTIRA	4	1	1	2	1	

Talde honetan 2022an Aizarnazabal eta Eskio-Itsaso gehitu zaizkie 2018ko herriei. Taldean, oraindik ere, badaude bi herri (Bidania eta Ezkio-Itsaso) erreferente teknikorik gabe.

Haur, nerabe eta gazteentzako ekipamenduei erreparatuz, legegintzaldian **aurrerapausoak** eman direla ikus daiteke: Lizartzan eta Ezkio-Itsason haurrentzako eta nerabeentzako ekipamenduak dituzte, eta Olaberrian eta Errezilen haur eta nerabeentzako espazio berriak daude.

Horretaz gain, hezitzaile-kopurua ere handitu da. 2018an bi herritan bakarrik zeuden nerabeekin lan egiteko hezitzaileak (Itsasondo eta Amezketa); 2022an horiei Ezkio-Itsaso, Errezil eta Olaberria batu zaizkie.






2.3. 1.000-2.500 biztanle dituzten herrietan


2022 1.000-2.500 BIZTANLE			ARDURADUN TEKNIKOA	ZERBITZUAK				Langile kop
BIZT. 22	H_N_G22	Guraso txoko		Haurrak	Nerabeak	Gazteak		
1 AIA	2.094	706	Suspertzailea		Ipotx 2	Ipotx elkartea	2	
2 ALEGIA	1.740	533	Kultura dinamizatzailea					
3 ANOETA	2.079	687	Suspertzailea			Loiri	1	
4 ATAUN	1.660	534				Udala	1	
5 BERASTEGI	1.103	348	Suspertzailea			Udala	1	
6 ELGETA	1.122	350	Suspertzailea		Udala		1	
7 IDIAZABAL	2.300	739	Berdintasuna, hezkuntza, esku hartze komunitarioa		Xapobixi	Kalexka	3	
8 IRURA	1.885	705	Gazteria eta parte hartzea		Udala	Udala	2	
9 MENDARO	1.977	674	kultura, jai, kirol eta merkataritza		Zientz	Zientzikasi koop.	2	
10 ORMAIZTEGI	1.238	397	Suspertzailea			Kili kolo	1	
11 SEGURA	1.473	486						
12 ZALDIBIA	1.676	584	Kultur dinamizatzailea					
13 ZEGAMA	1.538	485	Suspertzailea			Udala	2	
GUZTIRA			11	2	7	10	15	

2018		ARDURADUN TEKNIKOA	ZERBITZUAK			
			Haurrak	Nerabeak	Gazteak	
1 AIA	Suspertzailea		Ipotx elkartea	Ipotx elkartea		
2 ALEGIA	dinamizatzailea					
3 ANOETA	Kultura dinamizatzailea					
4 ATAUN	Suspertzailea					
5 ELGETA	Suspertzailea			udala		
6 IDIAZABAL	kult, eusk eta gazt tek		Xapobixi	Xapobixi aisialdi	entsegu lokalak	
7 IRURA	kultur laguntzailea					
8 MENDARO	Dinamizatzailea		Agintzari	Agintzari	entsegu lokalak	
9 ORMAIZTEGI	Suspertzailea			Maindi		
10 SEGURA	Suspertzailea					
11 ZALDIBIA	dinamizatzailea					
12 ZEGAMA	Suspertzailea					
GUZTIRA		12	3	7	10	5

Talde honetan herri berri bat sartu da sarera: Berastegi. Bertako udalak suspertzaile bat kontratatu du eta nerabeekin lanean hasi da. Tamalez, Ataun eta Seguran suspertzailearik gabe geratu dira eta, horrenbestez, gaur egun erreferente teknikorik ez dugu herri horietan. Horretaz gain, Alegian, nahiz eta erreferente tekniko izan, ez dago hezitzailearik haur eta nerabeekin lan egiteko. Elgetaren kasuan ere 2018an baino okerrago daude 2022an, haur eta nerabeekin lan egitetik haurrekin bakarrik esku hartzera pasatu direlako.

Aian sustapen-arloa garatu egin da haur eta nerabeentzako bi azpiegitura berri irekiz. Anoetan, 2018an ez zegoen suspertzailearik eta egun badago. Idiazabalen 2018an herriko elkarteak, Xapobixik, kudeatzen zuen haur eta nerabeentzako eskaintza; 2022an, Kalexka elkarteak da nerabeekin lan egiten duena. Mendaron ere entitate kudeatzailea aldatu egin da.






2.4. 2.500-5.000 biztanle dituzten herriak

2022								
2.500-5.000 BIZTANLE								
			ZERBITZUAK					Langile kop
	BIZT. 22	H_N_G22	ARDURADUN TEKNIKOAK	Guraso txoko	Haurrak	Nerabeak	Gazteak	
1	ESKORIATZA	4.159	1171	Gazteria		Txirikia	Txatxilipurdi elkarte	5
2	IBARRA	4.141	1236	Kultur eta gazteria		kakexka	Kalexka	3
3	SORALUZE	3.843	1093	Kultura, kirola, euskara eta gazteria		Udala	Pil pilean	5
4	ZESTOA	3.757	1171	Suspertzailea			Udala	1
5	ZIZURKIL	3.005	956	Kultura, euskara, hezkuntza, Kirola eta gazteria Teknikaria			Udala	1
GUZTIRA			5		4	5		15

2018		ZERBITZUAK			
		ARDURADUN TEKNIKOAK	Haurrak	Nerabeak	Gazteak
1	ESKORIATZA	Gazteria teknikaria	Txirikia aisialdi elkarte	Txatxilipurdi elkarte	
2	IBARRA	Kultur eta gazt teknikaria	Kalexka elkarte	Kalexka elkarte	Entsegu lokalak.
3	SORALUZE	Kultura, kirola, euskara eta gazteria Teknikaria		Pil pilean euskara elkarte	Entsegu lokalak.
4	ZESTOA	Suspertzailea			Entsegu lokalak.
5	ZIZURKIL	hezkuntza, Kirola eta gazteria	Udala	Udala	
GUZTIRA		5	1	4	5

Talde honetan aldaketa gutxi egon da: herriak berdinak dira, eta haur eta nerabeentzako ekipamendu-kopuru bera dago. Zerbitzuak eskaintzeko kontratatutako erakundeak ere berdinak dira. Herri horietan sustapenerako eskaintza, beraz, nahiko egonkorra da.

2018an hiru herritan gazteentzako entsegu lokalak zeudela jasota zegoen, 2022ko Gaztesareko eguneraketan ekipamendu horiek agertzen ez direnez, ez ditugu taulan jaso.



2.5 5.000-10.000 biztanle dituzten herriak

2022			ZERBITZUAK					Langile kop	
5.000-10.000 BIZTANLE			ARDURADUN TEKNIKOAK	Guraso txoko	Haurrak	Nerabeak	Gazteak		
	BIZT. 22	H_N_G22							
1	ARETXABALETA	7.074	2112	Gazteria		Loramendi	Txabilipurdi	5	
	ASTIGARRAGA	7.424		Gazteria eta kirol teknikaria			AZ	5	
2	DEBA	5.398	2467			Zehar	Zehar		
3			1519	Gazteria eta kirol teknikaria				7	
4	LAZKAO	5.962	1993	Kirola eta gazteria				Entsegu lokalak	
5	LEGAZPI	8.340	2275	Sustapen teknikaria			Lorraz elkarte	Udala sorkuntz	
6	ORIO	6.069	1977	Kirola eta gazteria		Txurruusk i	Txurruuski elkarte		
7	URNIETA	6.181	1965	Sustapen Sailaren Arduraduna			HeziZerb Elkarte	GIB Udala elkarleen	
8	URRETXU	6.740	2057	Sustapen Kultura, euskara eta			Karrika		
9	USURBIL	6.166	1906	Gazteria			Ostargi elkarte		
10	VILLABONA	5.839	1818	Berdintasuna eta Gazteria					
11	ZUMARRAGA	9.678	2759						
GUZTIRA				11	1	3	8	5	33


2018		ZERBITZUAK				
	ARDURADUN TEKNIKOAK	HAURRAK	Nerabeak	Gazteak		
1	ARETXABALETA	Gazteria teknikaria	Loramendi elkarte	Txabilipurdi elkarte	Entsegu lokalak	
2	ASTIGARRAGA			AZ Zerbitzuak	GIB	
3	LAZKAO	Kirola eta gazteria		Lorraz elkarte	GIB+ entsegu lokalak	
4	LEGAZPI	Sustapena		Lapazorri elkarte		
5	MUTRIKU	Kirola eta gazteria	Lapazorri Elkarte			
6	ORDIZIA	Gazte informatzailea		Horbel sozietate	GIB Entsegu lokalak	
7	ORIO	teknikaria	Txurruuski	Txurruuski		
8	URNIETA	Sustapen Sailaren Arduraduna	Kulturnieta	HeziZerb Elkarte	GIB + elkarreentzako gunea+sorkuntza taldea	
9	URRETXU	Sustapen soziokulturaleko koordinatzailea		Karrika gizarte zerbitzuak	entsegu lokalak+ Irimo	
10	USURBIL	Kultura, gazteria, euskara		Ostargi elkarte		
11	VILLABONA	Hezkuntza eta kirol teknikaria		Maindi elkarte	GIB	
12	ZUMAIA	Berdintasuna eta Gazteria	Euskaratik	HeziZerb Elkarte		
GUZTIRA		11	2	5	12	13

Bi taulak konparatuz, agerian geratzen da talde honetan aldaketak egon direla. Herri-kopuruari dagokionez, batetik, Mutriku saretik irten zen eta Deba, urte batzuk saretik kanpo egon ondoren, Gaztematikara bueltatu da; bestetik, biztanle-kopuruak aldatu direnez, herri batzuk taldean sartu dira eta beste batzuk berriz atera: Zumaiak eta Ordiziak 10.000 biztanle baino gehiago dituztenez, hurrengo taldera pasa dira, eta Zumarragak berriz herritarrak galdu dituzenez, talde honetan sartu da.

Ekipamenduak aztertuz agerian geratzen da atzera egin dugula: 2022an Urnietan ez zegoen haurrentzako zerbitzurik, eta, nerabeei dagokienez, Villabonan eta Zumarragan ez da eskaintzarik egon.

Erakunde kudeatzaileak berdindu mantendu dira.

Gazteentzako ekipamenduei erreparatuta, batzuk desagertu direla ikus dezakegu, horien artean, Astigarraga eta Villabonako gazteentzako informazio-bulegoak.



2.6. 10.000-20.000 biztanle dituzten herriak


2022		ZERBITZUAK						
10.000 - 20.000 BIZTANLE		ARDURADUN TEKNIKOAK	Guraso txoko	Haurrak	Nerabeak	Gazteak	Langile kop	
BIZTANLEAK	H_N_G							
1 ANDOAIN	14.641	4117	Enplegua eta gazteria		UTE Andoingo Haurrentzako Zerbitzuak	kili kolo	7	
2 AZKOITIA	11.638	3835	Elkargune, aniztasun eta gazteria		HZ	HZ zerbitzuak	GIB HZ Entsegu lokalak	
3 AZPEITIA	14.934	4890	Gazteria		2 Jauzika	Jauzika	GIB	
4 BEASAIN	13.882	4504	Berdintasun eta gazteria					
5 BERGARA	14.655	4120	Gazteria, hezkuntza eta partaidetza	3	Jardun 3	Zehar		
6 ELGOIBAR	11.621	3419	Gazteria		Zehar	Zehar		
7 HONDARRIBIA	16.876	4979	Hezkuntza eta Gazteria			HeziZerb elkarteak	GIB HeziZerb Sorkuntza	
8 LASARTE-ORIA	18.421	5065	Kultur dinamizatzailea					
9 OIARTZUN	10.293	3191	Kirola eta Gazteria		Nekane Martiarena			
10 OÑATI	11.381	3437	Sustapen		Txatxilipudi Zehar Elkarteak	Zehar	GIB Zehar Elkarteak	
11 ORDIZIA	10.398	3554	Sustapen tek informatzailea			Horbel sozietate kooperatiboa	GIB udala	
12 PASAIA	16.432	4585	Gazteria		3Kantauri Elkarteak 3	3Kantauri Elkarteak		
13 TOLOSA	19.785	6104	Gazteria			Kili kolo		
14 ZUMAIA	10.098	3253	Gazteria, berdintasuna eta partehartzea		Udala euskaratik	HeziZerb elkarteak		
GUZTIRA			14	4	13	14	7	85

2018		ZERBITZUAK			
ARDURADUN TEKNIKOAK		Guraso Txokoak	HAURRAK	Nerabeak	Gazteak
1 ANDOAIN	Enplegua eta gazteria		Karmele Albeniz y otra CB	Maindi Elkarteak	GIB: Maindi Elkarteak
2 AZKOITIA	Elkargune, aniztasun eta gazteria		HZ	HZ zerbitzuak	GIB HZ Entsegu lokalak
3 AZPEITI	Gazteria teknikaria		Jauzika 2	Jauzika	GIB Jauzika
4 BERGARA	Hezkuntza eta Gazteria	3	Jardun 3	Jardun Euskara taldea	Entsegu lokalak
5 ELGOIBAR	Gazteria teknikaria eta informatzailea		Elgoibarko Izarra	Elgoibarko Izarra	GIB
6 HERNANI	Gazteria			Urburu elkarteak	GIB
7 HONDARRIBIA	Hezkuntza eta Gazteria			HeziZerb elkarteak	GIB HeziZerb
8 LASARTE	kultur dinamizatzailea				GIB
9 OIARTZUN	Kirola eta Gazteria	1	Nekane Martiarena		
10 OÑATI	Sustapena	2	Txatxilipudi Zehar Elkarteak 2	Zehar Heziketa eta programak Elkarteak	GIB Zehar Elkarteak
11 PASAIA	Gazteria		Kantauri Elkarteak 3	Kantauri Elkarteak 3	
12 TOLOSA	Sustapena			Maindi elkarteak	entsegu lokalak GIB+ topaketarako lok
13 ZUMARRAGA	Sustapena				Entsegu lokalak
	13	6	14	13	14

Talde honetan ere aldaketak izan dira: lehen aipatu bezala, Ordizia eta Zumaia sartu dira eta Zumarraga atera; horretaz gain, Hernanik 20.000 biztanleko langa pasa duenez, hurrengo taldean sailkatu da, eta Beasain Gaztematikara bueltatu da.

Ekipamenduen errepasoa eginez, gazteentzako ekipamendu-kopurua nabarmen jaitsi dela ikus daiteke talde honetan ere. Haur eta nerabeenak berriz mantendu dira.

Zerbitzuen kudeaketan aldaketa batzuk eman dira: Zehar elkarteak Bergarako gaztelekua eta Elgoibarko haurtxokos eta gaztelekua kudeatzen hasi da.



2.7 20.000 biztanle baino gehiagoko herriak

2022 20.000tik GORAGOKO HERRIAK			ARDURADUN TEKNIKOA	Guraso txoko	ZERBITZUAK			Langile kop	
	BIZT. 22	H. N. G22			HAURRAK	Nerabeak	Gazteak		
1	ARRASATE	21.757	5866	Sustapena		3Txatxilipurdi Elkartea 3	4Txatxilipurdi Elkartea 4	GIB Udala sorkuntza	20
2	DONOSTIA	187.845	52252	Sustapena 8		9 HeziZerb SLU	9HeziZerb SLU	Kontadores HZ	35
3	EIBAR	27.308	7628	Kultura eta gazteria		Astixa3	Astixa	AMJE	8
4	ERRETERIA	39.065	10954	Hezkuntza eta Gazteria		6Hezi Zerb	2Hezi Zerb		15
5	HERNANI	20.475	6169	Gazteria			Urburu elkartea	Elkarteentzako	4
6	IRUN	62.526	17966	Gazteria 4		3 Txiribuelta kabia	Txiribuelta	GIB Udala	12
7	ZARAUTZ	23.110	7116	Gazteria			Kabia	GIB kabia	10
GUZTIRA			17	3	25	19	6	104	
	ALDUNDIA	727.752	212.728	Sustapena 20				Gaztegun Horbel	2


2018		ZERBITZUAK				
	ARDURADUN TEKNIKOA		HAURRAK	Nerabeak	Gazteak	
1	ARRASATE	Sustapen		Txatxilipurdi Elkartea 3	Txatxilipurdi Elkartea 4	GIB+ Entsegu lokalak
2	DONOSTIA	Sustapena 8 Gazteriako	2	HeziZerb SLU 8	HeziZerb SLU 8	Artaziak+ Entsegu Ink+ GIB GIB
3	EIBAR	dinamizatzailea Hezkuntza eta Gazteria	1	Astixa 2	Astixa	Entsegu lokalak GIB
4	ERRETERIA		1	HeziZerb Elkartea 6	HeziZerb Elakrtea 2	
5	IRUN	Gazteria 5		Txiribuelta3	Txiribuelta	GIB
6	ZARAUTZ	Gazteria		Kabia	Kabia	GIB
	ALDUNDIA	Sustapen 20				Gaztegun e
		37	4	23	17	11

Lehenago aipatu bezala, taldea handitu da Hernani sartu delako. Talde honetan ere gazteentzako ekipamendu gutxiago dagoela ikus dezakegu: Donostian eta Erreterian GIBak desagertu dira.

Nerabeen zerbitzuei dagokienez, Donostian gazteleku bat gehiago dago, eta Hernanikoa batuz 2018an baino 2 gehiago.

Haurren zerbitzuetan ere igoera izan da Donostian eta Eibarren ekipamendu berriak ireki dituztelako.

Kudeaketan berriz ez da aldaketarik izan; erakunde berdinak dira kudeaketaz arduratzen direnak.




2.8 Laburpen-taula


GAZTEMATIKAREN GARAPENAREN ALDERAKETA 2018-2022												
Biztanleak	Guraso txokoak		Haurren ekipamenduak		Nerabeen ekipamenduak		Gazteen ekipamenduak		Erreferente teknikoak		Langile kopurua	
	2018	2022	2018	2022	2018	2022	2018	2022	2018	2022	2018	2022
0-500	1	1	2	7	0	5	0	0	13	17		1
500-1000	1	1	1	6	2	6	1	1	4	6		5
1000-2500	3	2	7	7	10	10	5	0	12	11		15
2500-5000	1	0	4	4	5	5	3	0	5	5		15
5000-10000	2	1	5	3	12	8	13	5	11	11		33
10000-20000	6	4	14	13	13	14	14	7	13	14		85
20000tik gora	4	3	23	25	17	19	11	7	37	37		106
GUZTIRA	18	12	56	65	59	67	47	20	95	101	0	260

Taulan Gaztematikan dauden haur, nerabe eta gazteentzako ekipamendu kopuruak jaso dira. Legegintzaldi hasiera eta bukaerako datuak konparatuz ikus daiteke haur eta nerabeentzako ekipamendu gehiago daudela eta gazteentzako gutxiago. Hiru zerbitzuetako ekipamenduak batuz, guztira 162 zeuden 2018an, eta 152, 2022an. Guraso txoko kopurua ere jaitsi egin da.

Erreferente teknikoei dagokienez, 2022an 2018an baino gehiago ditugu sarean.

Ekipamenduetan lan egiten duten langileak ezin izan ditugu konparatu 2018ko azterketan datu hori jaso ez genuelako.





2.9 Erakunde kudeatzaileak

Ekartearen izena	Herria	Langile kopurua
1 AZ zerbitzuak	Astigarraga	5
2 Astixa elkarte	Eibar	8
3 Hezi Zerb SLU	Donostia, Hondarribia, Zumaia, Errearteria, Urnieta	57
4 Horbel gizarte ekimeneko kooperatiba	Mutiloa, Ordizia, Gaztegune	6
5 HZ giza ekimenak SL	Azkoitia, Kontadores	9
6 Ipotx elkarte	Aia	2
7 Jardun euskara elkarte	Bergara	7
8 Jauzika heziketa elkarte	Azpeitia	8
9 Kabia elkarte	Zarautz	10
10 Kalexka elkarte	Amezketeta, Errezil, Idiazabal, Ibarra	6
11 Kantauri elkarte	Pasaia	14
12 Karrika Gizarte Zerbitzuak	Urretxu	2
13 Kili kolo S. Coop.	Ormaiztegi, Andoain, Tolosa	7
14 Loiri elkarte	Anoeta	1
15 Loramendi elkarte	Aratzabaleta	2
16 Lorratz elkarte	Legazpi	5
17 Mattin abentura	Olaberria	1
18 Nekane Martiarena Labandibar	Oiartzun	5
19 Ostargi giza elkarte	Usurbil	2
20 Pil-pilean euskara elkarte	Soraluze	2
21 Txatxilipurdi elkarte	Eskoriatza, Aratzabaleta, Oñati, Arrasate,	26
22 Txiribuelta elkarte	Irun	12
23 Txirikila elkarte	Eskoriatza	2
24 Txurumuski elkarte	Orio	4
25 Urburu elkarte	Hernani	4
26 UTE Andoingo Haurrentzako Zerbitzuak	Andoain	3
27 Xapobixi berri asialdi elkarte	Idiazabal	2
28 Zehar heziketa eta programak	Elgoibar, Deba, Bergara, Oñati	27
29 Zientzikasi kooperatiba	Mendaro	2


Aldameneko taulan jaso da Gaztematika sarean haur, nerabe eta gazteen sustapen-zerbitzuak kudeatzen dituzten entitateen zerrenda.

Guztira, 29 dira entitate kudeatzaileak eta, kasu gehienetan (zehazki, 22tan), herri bakar batean lan egiten dute. Ondorioz, gehienak elkarte txikiak direla pentsa dezakegu.

Hezi Zerb da arloko entitaterik handiena.


Herrien errepasoa egiterakoan ikusi da legegintzaldian zehar arlo honetan mugimendu gutxi egon dela.

Esan beharra dago, halaber, 16 herritan udalak zuzenean kudeatzen dituela zerbitzuak; parte-hartzea sustatzeko zerbitzuak eta informazio-bulegoak dira gehienak.



3. Gaztematikako langileak

3.1 Haur eta gazteen sustapenerako teknikariak




2022an Gaztematikan 102 erreferente tekniko ditugu. Talde horretan sartu dira aldundirako lan egiten duten profesionalak, guztira 21. 2018ko kontaktetan lurraldeko langileak sartu gabe, 76 ziren. Bi urteak alderatuz beraz 2022an 5 erreferente tekniko gehiago jaso ditugu.


Herri txikietan ditugun erreferente teknikoak 19 dira.

2022an, 2018an bezala, 9 dira lanena ari diren suspertzaileak.

Dedikaziori dagokionez, teknikari-kopuru osoaren ia erdiak (42) lanaldiaren laurdena eskaintzen dio HNGen sustapenari; eta ia beste erdiak (43) lanaldi osoa. Dena den, zehaztu beharra dago talde horretan Aldundiko teknikariak daudela; ondorioz, lanaldi osoa HNGen sustapenari dedikatzen dioten teknikariak askoz ere herri gutxiagotan daude; zehazki, 12 herri dira langileak HNGen sustapenerako bakarrik kontratatu dituztenak (horietako batean teknikaria lanaldi erdian dago, nahiz eta HNGen sustapenerako bakarrik kontratatuta egon; eta beste batean, teknikariak informatzaile lanak ere egiten ditu). 2018an, 11 ziren horrelako herriak; beraz, azken 4 urteotan egoera mantendu egin dela esan dezakegu.




3.2 Alderaketa 2018-2022



2018ko datuekin alderatzeko, herri txikietako eta lurraldeko teknikariak kendu ditugu; horrela, guztira 62 udal-teknikari izango lirateke Gaztematika sarean lan egiten, 2018an baino bi gehiago bakarrik.

Taldea, beraz, ez da gehiegi aldatu. Lanaldiari dagokionez, aldaketa nabarmenena lanaldi erdia baino gutxiagoko dedikazioa dutenen kopuruan dago: 2022an lanaldi erdia baino gutxiagoko dedikazioa duten langileen taldea handitu egin da. Datuen arabera, beraz, ardura bat baino gehiago duten teknikarien artean handitu egin da beste arloei eskainitako denbora, HNGen sustapenaren kalterako.





3.3 Hezitzaileak


Gaztematika sareko zerbitzuetan 245 hezitzailek egiten dute lan. Ia berdinak dira haur eta nerabeen zerbitzuetan lan egiten duten hezitzaileen taldeak; 100 inguru bakoitzean.

PSZtan guztira 24 pertsonak lan egiten dute: 9 suspertzaile-funtzioak betez, eta beste 15 soilik hezitzaile-funtzioekin. 2018ko datuekin alderatuz, suspertzaileen kopurua berdina da, eta hezitzaileena berriz igo egin da (2018an 20 pertsonak lan egiten zuten PSZtan).


Bakan batzuk dira gazteekin lan egiten duten hezitzaileak: 3 besterik ez. Dena den, horiei informatzaileak gehituz gero (11 daude sarean funtzio horiekin), 14 langilera igotzen da gazteentzako zerbitzuetan lan egiten dutenen kopurua.

Sexuari dagokionez, 183 emakume eta 62 gizon ari dira hezitzaile-lanak egiten. Beste modu batera esanda, langileen laurdena (% 25) bakarrik da gizonezkoa.

Hezitzaile kopurua zerbitzuen arabera




Hezitzaileak sexuaren arabera






▷▷▷ 3.4 2018-2022 alderaketa



2018ko datuekin alderatuta, hezitzaileen taldea handitu dela ikus dezakegu: 223 izatetik 245 izatera pasatu dira. 2018an hezitzaile guztiak bi zerbitzuren arabera bakarrik sailkatu ziren (haurren zerbitzua eta nerabeena), eta sailkapen horrekin handiagoa zen nerabeekin lan egiten zuten hezitzaileen kopurua (120 hezitzaile nerabeen zerbitzuetan eta 103 haurren zerbitzuetan). 2022an kategoria gehiagotan sailkatu ditugu, aurreko taulan jaso den bezala, eta horren arabera, ia berdina da haurrekin eta nerabeekin lan egiten dutenen hezitzaile-kopurua (haurrekin 98 eta nerabeekin 99).

Sexuari dagokionez, 2018an nesken portzentajea % 70ekoa zen, eta, 2022an, hezitzaileen artean % 75eraino igo da nesken portzentajea.





4. Gaztematikako zerbitzuak

4.1 Haurrentzako zerbitzuak

HZ 2022an
1 ANDOAIN
2 ARETXABALETA
3 ARRASATE
4 AZKOITIA
5 AZPEITIA
6 BERGARA
7 DEBA
8 DONOSTIA
9 EIBAR
10 ELGOIBAR
11 ERRENERIA
12 ESKORIATZA
13 IRUN
14 MENDARO
15 OIARTZUN
16 OÑATI
17 ORIO
18 PASAIA
19 SORALUZE
20 ZARAUTZ
21 ZUMAIA**

HZ 2018AN
1 ANDOAIN
2 ARETXABALETA
3 ARRASATE
4 AZKOITIA
5 AZPEITIA
6 BERGARA
7 DONOSTIA
8 EIBAR
9 ELGOIBAR
10 ERRENERIA
11 ESKORIATZA
12 IRUN
13 MENDARO
14 MUTRIKU
15 OIARTZUN
16 OÑATI
17 ORIO
18 PASAIA
19 SORALUZE
20 URNIETA
21 ZARAUTZ
22 ZUMAIA**



Haurrentzako zerbitzuen bilakaera aztertzerakoan ikus dezakegu nahiko egonkor mantendu dela. Zerrendak alderatuz, 2022an 2018an baino bat gutxiago dagoela ikusten da: pandemian itxitako Urnietako ludoteka oraindik ireki gabe zegoen, baina udalak berriro abian jartzeko asmoa du.

Horretaz gain, beste aldaketa bat izan da zerrendan: Mutriku desagertu da Gaztematikatik atera delako, eta Deba, berriz, sarera itzuli eta haurrei zerbitzua eskaintzen hasi zaie Itzian.

Errepassoarekin bukatzeko, aipatu nahi dugu legegintzaldi honetan Donostiako zerbitzuen sarea zabaltzeko asmoa dela eta auzo berri bat gehitu dela: Altza. Horrela, hiriburuan 9 auzotara iristen da HNGen sustapenerako eskaintza.





4.2 Nerabeentzako zerbitzuak


NZ 2022an	
1	ANDOAIN
2	ARETXABALETA
3	ARRASATE
4	ASTIGARRAGA
5	AZKOITIA
6	AZPEITIA
7	BERGARA
8	DONOSTIA
9	EIBAR
10	ELGOIBAR
11	ERRENERIA
12	ESKORIATZA
13	HERNANI
14	HONDARRIBIA
15	IRUN
16	LASARTE**
17	LAZKAO
18	LEGAZPI
19	MENDARO
20	OÑATI
21	ORDIZIA
22	ORIO
23	PASAIA
24	SORALUZE
25	TOLOSA
26	URNIETA
27	URRETXU
28	USURBIL
29	ZARAUTZ
30	ZUMAIA

NZ 2018an	
1	ANDOAIN
2	ARETXABALETA
3	ARRASATE
4	ASTIGARRAGA
5	AZKOITIA
6	AZPEITIA
7	BERGARA
8	DONOSTIA
9	EIBAR
10	ELGOIBAR
11	ERRENERIA
12	ESKORIATZA
13	HERNANI
14	HONDARRIBIA
15	IRUN
16	LASARTE**
17	LAZKAO
18	LEGAZPI
19	MENDARO
20	MUTRIKU
21	OÑATI
22	ORDIZIA
23	ORIO
24	PASAIA
25	SORALUZE
26	TOLOSA
27	URNIETA
28	URRETXU-ZUMARRAGA
29	USURBIL
30	VILLABONA
31	ZARAUTZ
32	ZUMAIA




Nerabeen zerbitzuetan izandako aldaketak aztertuz, tauletan jasotakoaren arabera, gutxitu egin dira: 2018an 32 zeuden eta 2022an 30. Batetik, Mutriku zerrendatik desagertu da; bestetik, Villabonako zerbitzua itxita zegoen datuak bildu ditugunean, nahiz eta jakin udalak berriro irekitzeko asmoa duela. Azkenik, Zumarragak eta Urretxuk gazteleku batera kudeatu dute hasieratik, baina 2022an Urretxuren esku geratu da kudeaketa.

Bukatzeko, Donostian, haurrekin bezala nerabeekin ere hasi dira Altzan zerbitzua eskaintzen.



4.3 Haur eta gazteen parte-hartzea sustatzeko zerbitzuak


2022an 2018an baino zerbitzu bat gehiago dago Gipuzkoan. Gertuagotik aztertuz, ikusten da PSZ batzuk desagertu direla (Alegia, Ataun eta Segura) eta beste batzuk sortu (Anoeta, Berastegi, Olaberria eta Errezil). Anoetan eta Berastegin suspertzaile batekin hasi dira HNGen sustapena lantzen; Olaberrin funtzio teknikoak udalean mantendu dira, eta hezitzailea azpikontratatu dute; eta Errezilen, berriz, gizarte zerbitzuetatik bultzatutako proiektu pilotu bat garatzen ari dira. Pertsona bat kontratatu dute herrian suspertzaile-lanak egiteaz gain, gizarte eta hezkuntza-arloan esku hartzeko.



PSZ 2022AN	
1	AIA
2	AMEZKETA
3	ANOETA
4	BERASTEGI
5	ELGETA
6	ERREZIL
7	IBARRA
8	IDIAZABAL
9	IRURA
10	ITSASONDO
11	OLABERRIA
12	ORMAIZTEGI
13	ZEGAMA
14	ZESTOA
15	ZIZURKIL

PSZ 2018AN	
1	AIA
2	ALEGIA
3	AMEZKETA
4	ATAUN
5	ELGETA
6	IDIAZABAL
7	IBARRA
8	IRURA
9	ITSASONDO
10	ORMAIZTEGI
11	SEGURA
12	ZEGAMA
13	ZESTOA
14	ZIZURKIL

Errezilgoa ez da proiektu pilotu bakarra, 2022an 1.000 biztanletik beherako Gipuzkoako 10 udalerritan nerabeen sustapena indartu eta iraunkor egiteko egitasmo bat abiatu du Aldundiak. Bi urteko epea duen proiektu pilotua da, eta Aizarnazabal, Albiztur, Alkiza, Altzo, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Ikaztegieta, Larraul eta Lizartza parte hartzen ari dira. Aldundiak bere gain hartu du zerbitzu horren ardura, eta, zeharkako kontratazio baten bidez, 10 herri horietan nerabeekin zuzenean lan egiteko, bi hezitzaile arituko dira jornada erdian (bakoitza 5 herritan)*.



* Bi langile horiek ez dira txosten honetako langileen atalean kontutan hartu Gaztesaren jasota ez daudelako.


4.4 Gazteentzako zerbitzuak

GZ 2022an	
1	ARRASATE
2	AZKOITIA
3	AZPEITIA
4	DONOSTIA
5	IRUN
6	LASARTE
7	LEGAZPI
8	OÑATI
9	ORDIZIA
10	TOLOSA
11	URNIETA
12	ZARAUZ

GIB 2018an	
1	ANDOAIN
2	ARRASATE
3	ASTIGARRAGA
4	AZKOITIA
5	AZPEITIA
6	DONOSTIA
7	EIBAR
8	ELGOIBAR
9	ERRETERIA
10	HERNANI
11	HONDARRIBIA
12	IRUN
13	LASARTE
14	LEGAZPI
15	OÑATI
16	ORDIZIA
17	TOLOSA
18	URNIETA
19	VILLABONA
20	ZARAUZ




Gazteentzako eskaintzaren gainbehera nabaria da: 2018an zeuden informazio-zerbitzuen ia erdia desagertu da, eta ez dira berriak ireki.






4.5 2018-2022 alderaketa




Zerbitzuen alderaketan ikusten duguna da nahiko egonkor mantendu direla haur eta nerabeentzako zerbitzuak eta PSZk; halere, gorabehera txiki batzuk izan direla ikus dezakegu.

Gazteen zerbitzuetan, berriz, nabarmena da beranzko joera: azken 4 urteotan informazio-bulegoak desagertzen joan dira, baina ez dira beste zerbitzu batzuk ireki konpentsatzeko. Horrela, gazteentzako 20 zerbitzu izatetik 12ra pasatu gara.

Orokorrean, beraz, gutxiago dira 2022an Gaztematikan dauden haur, nerabe eta gazteen sustapen-zerbitzuak: 88 izatetik 77 izatera pasatu dira.





5. Haur, nerabe eta gazteen sustapenerako aurrekontua

5.1. Azterketa orokorra


AURREKONTUA 2018-2022								
Biztanleak	Orokorra		Sustapena		Orokorrearekiko %		Inbertsioa pertsona bakoitzeko	
	2018	2022	2018	2022	2018	2022	2018	2022
0-500	8.486.251€	9.157.455 €	121.349 €	142.520 €	1,75	1,86	97,07 €	101,25 €
500-1000	6.968.352 €	12.267.816 €	235.372 €	225.638 €	3,60	2,00	193,10 €	142,98 €
1000-2500	26.031.928 €	31.629.696 €	668.503 €	954.977 €	2,69	3,02	103,21 €	132,12 €
2500-5000	24.316.839 €	29.677.804 €	661.632 €	823.606 €	2,90	2,78	125,77 €	146,37 €
5000-10000	115.506.991 €	131.634.583 €	1.607.463 €	1.740.760 €	1,49	1,32	65,57 €	76,19 €
10000-20000	278.749.554 €	330.532.539 €	4.772.135 €	5.503.827 €	1,76	1,67	87,47 €	92,92 €
20000tik gora	676.266.354 €	742.058.550 €	5.903.160 €	7.046.169 €	0,89	0,95	59,18 €	65,27 €
Aldundia	793.023.530 €	994.602.350 €	2.863.625 €	3.088.612 €	0,36	0,31	13,58 €	14,44 €
GUZTIRA	1.929.349.802 €	2.281.560.792 €	16.833.243 €	19.526.109 €	0,87	0,86	82,86 €	91,78 €

Taulan legegintzaldi hasierako eta bukaerako datuak alderatu ditugu. Datu orokorretan zentratuz, ondorio nagusia da 4 urtetan ez dela handitu HNGen sustapenak aurrekontu orokorrearekiko duen pisua: % 0,87 izatetik % 0,86 izatera pasatu da.

Herriaren tamainaren arabera azterketa eginez, ikusten da 3 taldetan handitu dela portzentaje hori: gehien igo dena 1.000 eta 2.500 biztanleko taldea, ondoren 500 biztanle baino gutxiagoko taldea, eta azkenik, apur bat igo da 20.000 biztanletik goragoko herrien taldea ere. Hain zuzen ere, 1.000-2.500 biztanleko herrien taldea da HNGen sustapenari eskainitako portzentajerik altuena duena: % 3,02.

0-30 adin-tarteko pertsonen artean inbertsioa nola banatzen den aztertuz, kopurua igo dela ikusten da: 82,86 €tik 91,78 €tara. Nolanahi ere, datuak taldez talde begiraturik, nabaria da inbertsioko datuaren ezberdintasuna taldeen artean. Inbertsio altuena duen taldeak 2.500-5.000 biztanleko herriak biltzen ditu: 146,37 €.


5.000 biztanletik beherako herrietan egiten da inbertsiorik altuena: 100 €tik gora kasu guztietan.



5.2. Langileen gastua


Haur, nerabe eta gazteen sustapenerako aurrekontu orokorra aztertu ondoren, interesgarria iruditu zaigu langileen gastuan sakontzea, horrela Gaztesare datu-basean jasota dagoen informazioari etekin gehiago ateraz.

Langeileen gastua	2018	2022
Kontratazio zuzena	2.937.743,88 €	3.065.836,80 €
Langile azpikontratatuena	7.049.193,61 €	8.906.268,75 €
GUZTIRA	9.986.937,49 €	11.972.105,55 €
Sustapenerako aurrekontua	17.272.561,92 €	19.586.732,67 €



Kopuruak aztertuz ikusten da langileen gastuak duen bolumena: HNGen sustapenerako aurrekontu orokorraren erdia baino gehiago da. Haur, nerabe eta gazteen sustapenerako aurrekontuaren % 58 izan zen 2018an eta % 61era iritsi zen 2022an.

2018tik 2022ra HNGen sustapenerako aurrekontu orokorra % 13 igo da, eta langileen gastua % 19; taulan ikus daitekeen bezala, batez ere azpikontratazioen bidez egindako gastua igo da.





6. Ondorioak

- Legegintzaldia COVID pandemiagatik baldintzatuta egon denez, testuinguru horretan kokatuta irakurri behar dira azterketa honetan lortutako emaitzak. 2022an 2018an baino herri gehiago dira Gaztematika sarearen partaide: **2018an 72 ziren eta 2022an 76**. Sarea **mantendu eta pixkanaka hedatu izana** oso modu positiboan baloratu behar da. Oso gutxi dira saretik kanpo geratu diren herriak eta, guztira, populazioaren % 3 besterik ez dute biltzen.

- Foru Aldundiak udalekin lankidetzan haur, nerabe eta gazteentzako planak, programak, jarduerak eta zerbitzuak martxan jartzeko banatzen dituen dirulaguntzen kopurua berdin mantendu da 4 urtetan, eta 2018an baino baxuagoa izan da: 500.000 € banatzetik 450.000 € banatzera pasatu da. Jasotako **dirulaguntza batez ere urteko planak eta zerbitzuak garatzeko erabili dute udalek**.

- **Gaztematika sareko zerbitzuei dagokienez, esan dezakegu mantentzea lortu dela**. Itxialdian HNGen sustapen-zerbitzuen biziraupena arriskuan ikusi bagenuen ere, pixkanaka berriro irekitzen joan dira herrietako zerbitzuak hasierako kopuruetara iritsi arte. Banaka aztertuta, 2022ko egoera honako hau da:
 - 2018an, 22 herritan zegoen haurren zerbitzua, eta 2022an, 21 herritan.
 - Nerabeen zerbitzuari dagokionez, 32 herritan egotetik 30era pasatu gara.
 - Oraindik ere, beraz, nerabeen zerbitzua duten herriak gehiago dira haurren zerbitzua dutenak baino.
 - PSZ duten herriak aztertuz, 14 herritan egotetik 15era iritsi gara; baina horiei, gainera, *Gure plaza txo!* proiektu pilotuaren bidez HNGentzako sustapen-eskaintza egonkorra duten herriak gehitu behar zaizkie.
 - Haur eta nerabeentzako ekipamenduen kopurua igo da: 115 izatetik 132 izatera pasatu gara. Kontaketa horretan PSZ duten herrietako azpiegiturak sartzen dira.
 - Gazteen zerbitzuek beherakada izan dute gazte-informazioko bulegoak ixten joan direlako. Ekipamenduak ere gutxiago dira.





- Orokorrean, zerbitzuei dagokienez, legegintzaldi honetan herri txikietan gertatu da aldaketarik nabarmenena. Egoera konplikatua izanik ere, **Gipuzkoako landa-eremuan haur eta nerabeen sustapena lantzeko ahalegina egin da; horren adibide garbia da zeuden zerbitzuak mantentzeaz gain berriak irekitzea lortu izana.**
- Erreferente teknikoen azterketak eman duen ondorio nagusia da **HNGen sustapenerako dedikazioen jaitsiera**: langileen kopurua mantendu arren, arlo bat baino gehiagoren ardura dutenek HNGen sustapenari eskainitako dedikazioa murriztu egin baita.
- **Hezitzaile-taldea, berriz, handitu egin da**: 223 ziren 2018an, eta 245 izatera pasatu dira 2022an. **Langileentzako gastuak ere gora** egin du eta HNGEn sustapeneko aurrekontuan portzentaje altuagoa izan du 2022an.
- Haur eta nerabeekin lan egiten duten hezitzaileen kopurua **orekatu** egin da ia parekoa izanik: 100 langile inguru talde bakoitzean.
- Sexuarekin, aldiz, ez da berdina gertatu: 2018an % 70 **emakumezkoak** ziren, eta 2022an % **75**eraino igo da portzentajea.
- Zerbitzu gehienak **azpikontratatuta** daude eta, kasu askotan, entitate kudeatzaileak herri bakar bateko zerbitzuak kudeatzen ditu. Horrek esan nahi du haur, nerabe eta gazteen sustapen-arloko entitate gehienak **txikiak** direla.
- Gaztematika sarea osatzen duten administrazioek **HNGen sustapenean egindako inbertsioaren bilakaera** begiratuta, ateratzen den ondorioa da **berdin** mantendu dela; horren interpretazio baikorra litzateke, ezohiko egoeraren ondoren, aurrekontua errekuperatzea lortu dela. Nolanahi ere, azpimarratu beharra dago haur, nerabe eta gazteen **sustapeneko inbertsio orokorra aurrekontu orokorraren % 1era ere ez** dela iristen.
- Dena den, esan beharra dago, herrien tamainaren arabera asko aldatzen dela portzentaje hori: 5.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan herri handietan baino portzentaje altuagoak inbertitzen dituzte haur, nerabe eta gazteen sustapenean.



GAZTEMATIKA